2006ko urria

53. zenbakia

Aiko!

Izortegiko aldizkari

Koldo Agirre, Athleticeko jokalari ohia

Geure lehoia

Super BM supermerkatuaren inaugurazioa – Julian Retegi – Zamudioko San Martin jaiak

Zamudiko jaiak Gora San Martin!

Parte hartu gure jaietan

Zamudio Udala

Jaiak euskaraz bizi!

CAFETERIA GENTURION

Espezialitateak: gozari eta pintxoak

Lehendakari Leizaola Plaza, 5
Telefonoa 94 452 19 49 - Zamudio

TOLDOS TOORIBERRI

- Lona industrialak
- Sareak
- Eguzki-ohialak
- Alokatzeko lonak

Tx. Lehendakari Leizaola Pl. 2
Tel.: 94 452 12 88
Fax: 94 452 27 41
Gasolindegi ondoan

Produkturik onenak erabiltzen ditugu onenak izateko

gastronomia baska

Peluquería Ana Belén
estetika solariuma

hermigarren
hde zamudio

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa
(Lagatzu, Zorrizketan, Arrekikili, Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Fernando Larrondo, Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Gaizka Eguskiza, Amagoia Guezuraga, Belen Gana, Pospolin eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao, Lurdes Lasuen, Asier Oruetxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Nagore Peñafiel, Zaloa Jaka, Zigor Apraiz, Asier Sanz eta Ana Landa

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: **AIKOR!**

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.

diruz lagundutako aldizkaria


14 Julian Retegi

11 Alaitz Zioirdia

30 Larrabetzuko Bertso Eskola

24 Zamudioko San Martin jaiak

22 Mañarikua gazteentzako egoitza

AURKIBIDEA

4Eritxia **5**Laburrak eta albisteak **12**Julian Retegi **14**Gazteen txokoa **15**Gaztea eta... Alaitz Ziordia **16**Publierreportajea **22**Mañarikua gazteentzako egoitza **24**Zamudioko San Martin jaiak **28**Derioko komertzianteen jaia **30**Larrabetzuko Bertso Eskola **32**Baserri mundua **33**Teknologia **34**Musika **35**Txorierri ezagutu **36**Sukaldaritza **37**Denborapasa **38**Agenda



Txorierri, industrierri

NAGORE PEÑAFIEL
(Kazetaria)

"Barriz be arrain handiak txikia eta xumea jan dau eta bera baino apur bat handiagoak diran arrainek ez deutsie errilta horretan txikiari lagundu"

Atzera begiratuten dot eta sentimendu alaiak datoz nire burura genduana gogoratuten dodanean. Gero triste paretan naz daukaguna ikusita eta amorru eta ezintasun nahastea sentitan dot izango doguna aurreikusita.

Pozarren gogoratuten dodaz txikitan egiten genduzan ibilaldiak gure herrian, Lezaman. Basoan edozein lekutan olgetan, zapaburuak hartuten, fardoak egiten ebezanean dan-dana gertutik ikusten, eta inongo ardura barik alde batetik bestera ibilten, azken finean zeozer behar izan ezkero, danek ekielako noren alaba zinan eta zure etxeko telefonoa, ezta? Sasoi baten holantxe zan.

Urteak pasatu ahala normala da gauzak aldatuten joatea, herria handitutea, ezetan ez dozuzan auzokideak dendan topatea, baina inoiz ez neban espero nire herria hain aldatuta ikustea, benetan.

Nongoa zara? Lezamarra esaten dogu orain be harrotasunez, onerako edo txarrerako danok ezetan garen herrikoa naz ni. Baina hemendik urte batzuetara orain ikusten doguzan aldaketok mendiaren tontorra bakarrik izango dira, gure herria zana beste zeozetan bihurtuko dalako.

Gure altxorra bereganatu gura dabe askok, eta batzuk, egia esan, inongo oztopo barik. Gure altxorra, bai, gu garena, HERRIA. Jakin badakie gure bailaran, Txorierrin, lur eremu erakargarria daukagula, oraindik zelai, solo eta basoakaz, hori beharrezkoa dalako eta baserri munduagaz lotura hurbila dagoalako oraindik.

Azken hilabeteetan amets gaizto bat errepikatuten da gutariko askoren loaldietan: Txorierri industrializatu bat ikusten dogu gure buruetan. Ideia alde batera itxi gura, eta ezin. BMLPPk hori gura dau, Bilbo eta bere ingurua handituteko azken planaren barruan Txorierri baita behar daben lur gehiena emongo dauan bailara. Hartutako erabakiak leuntzeko asmoz, etxebizitzak be egingo dabezala esan dabe, euren esanetan lurraldea orekatu eta holan lehiakorra, erakargarria eta jasangarria izango dalako.

Eurentzat guk jasango doguna, benetako garapen jasangarria da. Bakotxak pentsau dagiala gura dauana, baina ni triste nago. Triste nago gure ingurua guztiz aldatuko dalako, askorentzat belaunaldiz belaunaldi familiaren lur eremua izan dana industri egoitzakaz beteko dalako. Eta triste nago barriz be arrain handiak txikia eta xumea jan daualako eta bera baino apur bat handiagoak diran arrainek ez deutsie errilta horretan txikiari lagundu.

Bakotxak jakingo dau zelan sentitan dan bere buruagaz. Nik eskura genduzan informazinoak ikusita argi euki dot zer ez neban gura, baina dirudienez ez dago atzera egiterik. Horregatik galduko doguna ikusita, haserre, minduta, triste nago.

Zure bizitzako hautua

Lagun batek bere amodiozko istorioa kontatu dit. Harribitxizko eraztuna eskuan zuela, gau sargoritsuan eta ilargipean, bere mutilak ezkontzeko eskatu zionekoa kontatu dit. Buster Keaton-en zuri beltzeko komeria bailitzan, horrelako egoera batek, jesarlekutik lurrera "seko" jaustea eragingo ninduala esan diot nik. Lurrera "seko" lehenengo, gero, altxatu, eta, erantzun bata edo bestea emateko, noski. Egi santua.

Baina zein jokaera izango zenukete zuok berebiziko erabaki honen aurrean? "Bai, betirako zurekin ". Ummm.... zalantza uneak, beharbada?" Bihar erantzungo dizut", edota, beti baliagarria den esaldia: "ez, ez nago horretarako prest oraindik!".

Gure bizitzan zehar aurrez aurre jartzen zaizkigun hautuetan gertatu bezala, horrelako enbarazu baten agertzen dugun jarrera gure ausardiaren ispilu izan liteke. Zeinek esaten dizu zuri parez pare duzun bikotekidea zure betiko zoriontasunaren giltz izango dela? Inork! Baina baietz edo ezetz batek ausardia edo izuaren lekuko izan liteke. Bizitzaren aukeren aurrean personak hartzen dituen jarrerak dira horiek. Nire lagunak ausardiaren aldeko hautua egin du. Bejondeiola.

ZALOA JAKA
(Kazetaria)

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkero, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@yahoo.es

BMLPP dela-eta

Bilboko Metropoliko Lurralde Plan Partziala (BMLPP) onartu dute eta Lezama Bizirik elkartetik hurrengo hau adierazi nahi dugu: Planaren jarduera-lerro nagusiek asmo onak eduki arren, errealitatea erabat ezberdina da. Izan ere, gaur egungo arazoak areagotu egiten ditu, ingurugiroari dagokionez balio estrategiko handiko guneak suntsitzen ditu eta ez dio ekarpenik egiten guk garapen iraunkortzat hartzen dugun kontzeptuari.

BMLPPk industrialtzat eta etxebizitzekin bateraezintzat jotzen du Lezamako Aretxalde auzoaren zati gehiena, 120 hektarea hain zuzen ere. Horiek balio estrategiko handiko lursailak dira eta bertan nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak daude.

Etorkizuneko industrialde horrek garraio-zerbitzu publiko eskasa du, hurbilen dagoen Euskotren-eko geltokitik kilometro bira dago-eta. Trena eta Bizkaibus-eko zerbitzua –Lezaman 40 minuturo dago autobusa- zonaldeko garraio publiko bakarrak dira eta biak industrialdeetatik urrun daude. BMLPPk ez du hobekuntzarik aurreikusten garraio horietarako.

Foru Aldundiak argitaratutako Ekonomia-Jardueren Arloko Planean azaltzen den moduan, Txorierrin biztanle langileko erlazioa 1-4 da. Azken plan honek proposatzen zuen eta proposatzen duen konponbidea zonaldearen industria-garapena balaztatzea da. Baina BMLPPk, alderantziz, beste 306 hektarea industria-lursailtzat hartzea proposatzen du. Horrek desorekak handituko dituela begi bistakoa da eta garraio publikoaren arazoa gehitzen badiogu –ez dago Galdakaorako konexiorik, ez Amorebietarako, ez Mungiarako, ez Getxorako…-, norberaren ibilgailuaren erabilera bultzatzen du, inongo zalantzarik gabe. Ondorioak argi daude: normalean ibilgailuz gainezka dagoen Txorierriko korridorean trafiko handiagoa, atasku amaiezinak egunero, kutsadura akustikoa zein ingurumenekoa handitzea… Azken batean, bizi-kalitatea galtzea.

Lezama Bizirik elkartea

Oker zuzenketa

Aurreko alean, 6. orrialdean, aipatu genuen Zamudio Motor taldeko Ibon Garaia irabazle gertatu zela bere kategorian Laukizko Igoeran. Informazio hori, ordea, ez da zuzena: Garai ez da Zamudio Motor taldekoa, Zamudio Racing elkartekoa baizik.

Beste alde batetik, Sondikako Argazki Rallyko sariei buruzko albistea argitaratu genuen ekaineko alean, eta albiste horretan testua zein argazkia Amagoia Guezuragak eginak zirela aipatu genuen, baina argazkia ez zen Amagoiarena, Raúl Godinezena baizik.

Argazkia: Bestorrene

Elizegi sukaldariak Derioko Ostalarien Elkartea babestu du

Urriaren 20an, Derioko Ostalarien Elkartea aurkeztu zuten Larrabarri baserrian. Elkartea uztailean sortu zen, eta hurrengo helburu hauek ditu: Udalaren eta ostalarien arteko harremana erraztea, izan ditzaketen arazoei aurre egitea, eta herriko ostalaritza bultzatzea. Aitor Elizegi ospe handiko sukaldariak elkartea zein aurkezpen-ekitaldia babestu zituen.

Txorierri txapeldun gertatu da Irungo finalean.–Irailaren 16an Harri-zulatzaileen Euskal Herriko IV. Binakako Txapelketaren finala egin zen Irunen eta Txorierri taldeak txapela eskuratu zuen. Iñigo Aurrekoetxeak eta Aitor de la Concepcionek osatzen dute Txorierriko taldea eta marka hau egin zuten: 134,3 cm. Txorierrikoek iaz ere irabazi zuten txapela.

36 gaztek badute Loiugazte Txartela

Loiuko Udalaren Loiugazte Txartela Hori Gazte Planaren barruan egin diren egitasmoetarikoa da, eta 14 urtetik 27 urtera bitarteko gazteei zuzenduta dago. Gaur arte 36 lagunek eskuratu dute Loiugazte Txartela, eta hurrengo abantaila hauetaz baliatu ahal dira: %25eko beherapena kultura eta kirol ekintza eta kurtsoetan; deskontuak Udaleko Kultura Arloak antolatutako bidaietan zein kirol eta kultura ikuskizunetarako sarreretan; %25eko dedukzioa kirol instalazioen alokairuan eta %20ko deskontua Lauroetako gelaren alokairuan.

Beste alde batetik, Loiuko udal liburutegi berria zabalik dago. Ordutegi hau du: 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara. Udalak, ordutegia dela-eta, gazteen iradokizunak eta proposamenak eskertuko lituzke. Herriko gazte eta herritarren arteko bitartekotza ere martxan jarri dute, eta bertan, hainbat zerbitzu betetzeko aukera dute gazteek; umeak zaintzea eta klase partikularrak ematea, esate baterako. Era berean, bekadunen poltsak zabalik jarraitzen du. Horrek gazteek Udalean edo Udalarentzat lan egiten duten enpresetan bi hilabetean praktikak egitea du helburu. Horrela, bada, herriko neska bat izan da irailean eta urrian Kultura Arloan lanean. Praktika horietan interesa dutenek Udaletxean bertan eska dezakete informazioa.







Ekonomia jardueraren % 56, Txorierrira



Eusko Jaurlaritzak Bilboko Metropoliko Lurralde Plan Partziala (BMLPP) behin betiko onartu zuen irailean. Planak hainbat jarduketa aurreikusten du hurrengo 16 urteetarako. Haren arabera, Txorierrin ezarriko dira ekonomia-jardueren erdiak baino gehiago eta bizitegi eremu berriaren zati handi bat.

Eusko Jaurlaritzaren kalkuluen arabera, 2020. urtera arte 68.000tik 88.000 etxebizitza bitartean beharko dira Bilboko Metropolian. Haietatik guztietatik 15.000 Txorierrin kokatuko dira; kopuru hori, ordea, gutxi gorabeherakoa da udalek maniobra tarte bat izango baitute goitik nahiz behetik. BMLPPk lurzorutik 580 hektareako eremua bereizi du ekonomia-jardueretarako; eremu horretarik erdia baino gehiago (% 56) Txorierrin egongo da. Lezamako Aretxaldeko alorra 120 hektareakoa izango da eta Merkabilbaoko instalazioak hara eramatea proposatu da. BMLPPk gune logistiko handitzat hartzen du Loiuko aireportua (40 hektarea) eta tranbiaren aldeko apustua egiten du. Horrek Bilboko itsasadarraren ertz biak lotuko zituen eta Lutxanan egingo zuen bat Txorierrirekin. Beste jarduketa batzuen artean, oinez zein bizikletaz egiteko ibilbideak ere proposatzen ditu testuak. Bidegorri berriek Txorierriko herri guztiak lotuko zituen Unibertsitateraino.

Larrabetzuko Literatura Eskolak hasiera eman dio kurtso berriari

Udako etenaldiaren ostean, Larrabetzuko Literatura Eskola martxan jarri dute berriro, eta hainbat eskola antolatu dute aurtengo kurtsoari begira. Eskolak hilean behin izango dira: urritik ekainera, larunbat goizetan eta 10:00etatik 14:00etara, hain zuzen ere. Eskoletan parte hartzeko urte osorako izena emateko azken eguna urriaren 20an izan zen; hala ere, badago eskola jakin baterako izena emateko aukera. Hori eskola eguna baino astebete lehenago egin behar da arrekikili@gmail.com helbidean. Bertan, deiturak eta harremanetarako telefono zenbakia utzi behar dira. Joseba Tapiak eta Koldo Izagirrek hasiera eman zioten urriaren 28an Literatura Eskolari eta datozen hilabeteetan hainbat hizlari arituko dira; Pako Sodupe, Julen Gabiria eta Iratxe Retolaza, haien artean. Literatura Eskola 06/07ri buruzko informazio guztia **www.larrabetzu.org/literatura** web orrialdean dago: eskola egunak, gaiak, hizlariak, lekuak… Era berean, eskoletan gertatzen denaren kronikak-eta jarriko dituzte bertan.

Urrusti elkartea sortu dute Lezaman

Lezamarrek elkarte berria dute: Urrusti Elkarte Mikologiko eta Soziokulturala. Irailean sortu zuten eta 19 bazkide ditu. Bazkide gehiago hartzeko kanpainari ekin diote. Elkarteak mikologiarako zaletasuna eta mendizaletasuna umeengan zabaltzea du helburu; horretarako, hainbat irteera antolatuko dute urte osoan. Irailaren 30ean eta urriaren 12an, esate baterako, Altube mendira igo ziren eta urriaren 22an Masara egin zuten txangoa. Antolatzaileen esanetan, elkarteak oso harrera ona eduki du eta hiru irteerak arrakastatsuak izan dira. Taldean edo irteeretan parte hartu nahi izanez gero, telefono hauetara deitu behar da Urrustikoekin harremanetan jartzeko: **666173770 (Mikel) eta 649102122 (Eduardo)**.

Loiuko Azokak aurreikuspenak bete ditu

Argazkiak: Ana Landa

Urriaren 15ean, domekaz, Loiuko XIV. Eskulangintza eta Gastronomiako Azoka izan zen, eta bertan 85 bat ekoizlek parte hartu zuten. Aurreko urteetan bezala, azokak arrakasta handia eduki zuen, eta salmenta ugari egin ziren; eskulangintza-arloan, batez ere. Beste alde batetik, lumagorri oilasko eta txakolin dastatzea egin zuten, eta zanpantzarrek, trikitilariek eta txistulariek azoka girotu zuten. Era berean, umeentzako jolas-parkea jarri zen.



Giro ezin hobea Larrabetzuko Produktuen Azokan

Urriaren 21ean, zapatuz, Larrabetzuko Produktuen Azoka izan zen, Arrekikili euskara elkarteak antolatuta. Azoka urtero egiten da, eta bertan, uriko produktuak egoten dira salgai eta ikusgai: barazkiak, txakolina, ganadua, eztia, esku-lanak… Beraz, Larrabetzuko baserritarren lana ezagutzeko aukera itzela izaten da. Azoka goiz osoan izan zen, eta arratsaldean, beste ekitaldi bi egin zituzten. Alde batetik, Larrabetzuko Zoro, norgehiagoka ibili zen aizkoran Perri IIren aurka, eta beste alde batetik, bertso-poteoa egon zen, Onintza Enbeitia, Ekaitz Larrazabal "Katxo" eta Arrate Illaroren eskutik.



Pilota mundua, Lezaman ikusgai

Urriaren 2tik 6ra bitartean Euskal Pilota Astea izan zen Lezaman, bertako Udalak eta Pilota Eskolak antolatuta. Asteak "Euskal Pilota Herriz Herri" zuen lelo eta Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bizkaiko Pilota Federazioak babestu zuten.

Ekimenak pilotaren aberastasun kultural zabala umeei zein helduei hurbiltzea zuen helburu, eta, horretarako, hainbat ekitaldi egin ziren aste osoan.

Kultur Etxean pilotaren historiaren gaineko erakusketa jarri zuten, eta Lezamako Pilota Eskolaren historiak ere lekua izan zuen bertan, azalpen-panel baten bidez. Panel hori herriko frontoian behin betiko jartzeko asmoa dute. Era berean, pilotari buruzko dokumentala eman zuten. Ostiralean mahaingurua egin zen, bertan, Julian Retegik, Oier Zearrak eta Txaber Zabalak parte hartu zuten, eta euskal pilotaren iragana eta etorkizuna izan zituzten hizpide.

Beste alde batetik, eskola programa antolatu zuten 6. mailako ikasleei begira. Programak hurrengo hauek izan zituen ardatz nagusi: euskal pilotaren mundua eta pilotaren modalitate ezberdinak gaztetxoek ezagutzea, pilotak eta takoak egiten ikas zezatela, eta frontoian pilotaren modalitate ezberdinak praktika zitzatela. Pilota Eguna zapatuan ospatu zen eta jaialdi horrekin amaiera eman zioten Pilota Asteari.

Eta zirkoa Txorierrira ailegatu zen; Zamudiora, hain zuzen ere. Fischer familiak animaliak eta karabanak-eta Bidekoetxe parkean aparkatu, eta bertan altxatu zuten karpa hilaren 4an. Arratsaldeko emanaldia hasi baino lehen, euren bizitzari buruz jakiteko aukera izan genuen.

"Umeak dauden bitartean egongo da zirkoa"

Zein da Cirque Fischer-en historia?
Gure familiak lotura handia du ikuskizun munduarekin. Zirkoa duela 11 urte sortu genuen, eta birak Frantziatik, Belgikatik eta Euskal Herritik egiten ditugu, gehienbat. Iaz lehenengo aldiz etorri ginen bertora eta izugarri gustatu zitzaigun. Besoak zabalik hartu gintuzten, eta horregatik erabaki dugu aurten itzultzea. Baina gainditu gabeko irakasgaia dugu hurrengo urteari begira: euskara apur bat ikastea. Bestetik, gurea zirko familiarra da, txikia; bost lagunek lan egiten dugu bertan eta guztiok senideak gara.

Nolakoa da zuen ikuskizuna?
Ohiko zirko-ikuskizuna da: animaliak ditugu, orekariak, malabaristak, pailazoak… Ordubete eta hogei minutu irauten du. Lan handia egin behar da egunero animaliekin, horiek euren saioa ikas dezaten. Pazientzia handia izan behar da… Orekariek eta malabaristek ere orduak eta orduak eman behar dituzte euren saioak prestatzen, oreka-jokoak egitea ez baita lan batere erraza.

Nolakoa da bizitza karparen atzean?
Berezia, herri batetik bestera ibiltzen garelako. Bira martxoan hasi eta urrian amaitzen dugu. Eta bira amaitu ostean, etxera itzultzen gara: Frantziara… Hurrengo martxora arte!

Gogorra izan behar du horrek!
Ez, ez da lantegi batean lan egitea baino gogorragoa. Lana da; gure ogibidea, azken batean.

Sasoi onean dago zuen zirkoa?
Faktore askoren menpe gaude: eguraldia, publikoa… Eta nahiz urte batzuk beste batzuk baino hobeak izan, egoera orokorrean ona dela uste dugu. Izan ere, umeak dauden bitartean zirkoa egongo da.

Badute abantailarik zirko txikiek zirko handien aldean?
Zirko handiek azpiegitura handiagoak behar dituzte: artista gehiago, kamioi gehiago, langile gehiago, leku zabalagoak karpa jartzeko… Gurea txikiagoa denez, edozein lekutan altxa dezakegu, eta, ondorioz, herri txikiak bisitatu ahal ditugu. Eta emanaldira inor etorri ezean, tramankulu eta animalia guztiak amen batean bildu, eta hurrengora arte!

Nora joango zarete Zamudion egon eta gero?
Ez dakigu. Udalen baimenen zain egon behar dugu, eta ezinezkoa da ibilbide jakin bat finkatzea. Bihar jakingo dugu non egongo garen datorren astean! Frantzian ezberdina da kontu hori: bertan sei hilabete lehenago badakigu non egongo garen.

Zamudioko jaiak Gora San Martin!







Julian Retegi, Asegarceko kirol arduraduna

“Pilotatik bizi nahi baduzu,

Urrian hainbat ekitaldi antolatu dira Lezaman pilota munduari begira, 'Euskal pilota herriz herri' lelopean. Ekitaldion artean, mahai inguru bat egin da eta hartan Julian Retegi handia izan dugu solaskide. Asegarceren oraingo kirol arduradunak profesionaltasunaren aldeko apustua berretsi du.

Testua: Gaizka Eguskiza / Argazkiak: www.asegarce.com eta **AIKOR!**

Bizkaian zergatik dago goi mailako hain pilotari gutxi?
Bizkaiak pozik egoteko arrazoiak ditu: zale eta debutante asko daude eta gauzak ondo egiten dira. Baliteke Bizkaian punta-puntako pilotariak falta izatea, baina zaila izaten da halakoak agertzen.

Oier Zearra eta Txaber Zabala izan dituzu mahaikide. Zer uste duzu haiei buruz?
Oier Asegarcen dago eta pilotari handia da. Maila handia erakutsi du azken hiruzpalau urteotan. Beste alde batetik, Zabala hainbat aldiz ikusi dut amateur mailan. Badakit debuta egin duela Frontisekin, maila ona duela eta partida nagusiak jokatzen dabilela. Hasierako pausoak ez dira errazak izaten, baina etorkizun oparoa du eta denborak esango du noraino helduko den.

Lau t´erdiko Txapelketan murgilduta gaude. Zelan ikusten duzu?
Oso txapelketa garrantzitsua da. Banakako txapelketetan espezialistak behar dira eta gutxik balio dute, baina lau t´erdikoan aukera gehiago izaten dituzte pilotariek. Atzelariek abantaila dutela esaten da, baina ni ez nago ados. Frontisetik gertu jokatu ahal izateko artistak behar dira. Lau t´erdiko frontoia motzagoa da, baina indarra ere behar da, pilota bizia da eta pilotarien mugimenduak ere oso garrantzitsuak dira. Nik uste dut lau t´erdikoan 5 edo 6 pilotarik irabazteko aukera dutela. Hala ere, ustekabeak egon daitezke, urtero gertatzen den moduan.



“Bizkaian ez dago punta-puntako pilotaririk, baina zaletu eta debutante berri asko daude eta gauzak ondo egiten dira”

Banaka eta binakako Txapelketetan Aspeko pilotariak nagusitu dira. Emaitzak ez dira garrantzitsuenak, zure iritziz, baina irabazten ez baduzue, urte gogorra Asegarcerentzat, ezta?
Enpresa txapelak irabaztea baino zerbait gehiago ere bada: goi mailako pilotariak egin, jaialdiak antolatu, herriko pilotariak eta ikusleak kontent utzi… Ospea txapelen bidez etortzen da. Dena dela, pilotari bat nagusitzen denean, beti gertatzen da pare bat urtetan sendo ibiltzea eta horixe gertatu zaie Asperi eta Martinez de Irujori. Iberokoak Banakako eta Binakako txapelketak irabazi ditu, baina ziur nago lau t´erdian maila handiagoa erakutsiko duela.

Asegarce profesionaltasunera jotzen saiatzen da. Zelan hartzen dituzte pilotariek horren ondorioak?
Argi eta garbi uzten diet pilotariei profesional mailan gaudela. Hori onartzen denean, ardura handiagoa ere hartzen da. Gaur egun, pilotariak jaungoikoak bezalakoak dira, euren inguruan marketing handia dago eta. Hori guztia bazter batean utzi behar da eta profesionaltasuna erakutsi.

pilotarako bizi behar duzu”



Psikologikoki oso lan handia egin behar dugu, izan ere, pilotatik bizi nahi baduzu pilotarako bizi behar duzu.

Julen zure semea ere pilotaria da eta ona omen da, gainera. Zelan ikusten duzu bere etorkizuna?

Etorkizun oparoa du, baina berarekin batera pilotari gazte eta on asko daude: Arretxe, Diaz, Mendizabal, Apraiz, Oteiza, Argote, Beobide... Semeak estilo handia dauka, baina beti esaten diot balio duen bakarra jokoa dela, ez izena.

Arazorik ekartzen dizu enpresa berean egoteak?

Beti ateratzen dira gutxi batzuk, eta horiek retegitarrak entxufatuak garela esaten digute. Neure garaian berdin gertatu zitzaidan, osaba txapeldun handia baitzen. Baina jendea ez da tontoa, eta benetako zaleari berdin dio Retegi, Altzuarra ala Barberia bada. Niri berdin dit osaba edo semea bada; Julen enpresa berean dago eta pilotalekuan erakutsi behar du balio duen; bestela, etxera joan beharko du.

”Semeak pilotalekuan erakutsi behar du balio duen; bestela, etxera”

“Bulding Europe” programan izena emateko epea, zabalik

Novia Salcedo Fundazioak *“Bulding Europe” Profesional Gazteak Kultura Anitzeko Europarako* programa antolatzen du urtero. Programak hurrengo helburu hau du: Euskal Autonomia Erkidegoko gazteen profesionalizazioa bultzatzea, Europa dimentsioa hartzen duen kultura arteko gaitasun-profilaren garapenaren bidez.

Programan parte hartzen duten gazteek toki bi izango dute aukeran: Irlanda eta Erresuma Batua. Bertako enpresa edo erakunde batean praktikak egingo dituzte eta horrela, lan-munduan lehendabiziko esperientzia izateaz gainera, euren ezagutza atzerrian handitzeko aukera edukiko dute. Egonaldia 2007. urtarrilean hasiko da eta 16 astekoa izango da. Joan-etorriko bidaia, ostatu-gastuak ordaintzeko dirulaguntza eta istripu-asegurua daude bekaren barne.

“Bulding Europe” programa langabezian dauden gazteei zuzenduta dago. Gazteok erdi mailako edo goi mailako tituludunak izan eta *First Certificate* ingelesezko ziurtagiria eduki behar dute. Deialdian 28 urtera arteko lagunek parte har dezakete.

Beste alde batetik, hautagaien programarekiko interesa kontuan hartuko da horiek aukeratzeko orduan eta, era berean, eurak bekadun hartzeko prest dagoen enpresarik aldez aurretik topatu dutenak bereziki baloratuko dira.

Izen ematea Novia Salcedo Fundazioaren web orrialdean (**www.noviasalcedo.es**. Nazioarteko mugikortasuna izeneko ikonoan sartu behar da) egin daiteke urriaren 31ra arte; hala ere, baliteke epe hori luzatzea. Europako Erkidegoak diruz laguntzen dio programari.

“Izen ematea urriaren 31ra arte egin daiteke; hala ere, baliteke epe hori luzatzea”

Eskaintzen diren bekak

–Ingurumenarekiko sentsibilizazioa eta kontserbazioa
–Langileria hartzea eta aukeratzea
–Informazioa eta komunikazioa Gobernuz Kanpoko Erakundeen proiektuetan
–Administrazioari laguntza Giza Baliabideetako departamentuan
–Gizarte laguntza/emakumeei zuzendutako ekintzak
–Kolektibo behartsuenekin lan egitea
–Ikerkuntza Ozeanografian eta Itsas Zoologian
–Gobernuz Kanpoko Erakundeen giza eskubideen aldeko kanpainak dinamizatzea
–Ekoturismoa, interpretazioa eta espezien segimendua
–Ingurugiro-ikerkuntzaren gaineko proiektuei laguntzea
–Naturaren kontserbazioa: Europako politiken analisia, *networking* eta ekitaldiak antolatzea.



Alaitz Ziordia, kooperantea

“Ikusten dozunagaz ikasi eta laguntzen saiatu, ezin dozu gehiagorik egin”

Oraindik Txorierrin lurreratu ez dala harrapatu dogu Zamudioko Alaitz. Izan be, gaztea Kolonbiatik etorri barria da. Bertan hiru hilabete emon ditu kooperante moduan.

Testua: Itxaso Marina / Argazkia: Alaitz Ziordia

Uda emoteko aukera asko dago eta zuk kooperante joatea erabaki zenduan, zergaitik?

Orain arte monitore edo zuzendari ibili naz umeentzako udalekuetan, eta nazioarteko auzolandegietan be parte hartu izan dot. Baina aurtengo udan ez da auzolandegi horreek egiteko aukerearik egon eta Eusko Jaurlaritzako gazteei zuzendutako kooperazio-programan parte hartzera animatu nintzan, esperientzia barri bat bizitzeko asmoagaz eta umeak Euskal Herritik kanpo zelan bizi diren ezagutzeko. Egin beharreko probak gainditu eta moja pasiotarrek Pereiran daben Nuestro Hogar proiektuan ibiltzea egokitu jatan.

Zein eginbeharra zenduan bertan?

Zentroan 0 urtetik 8 urtera bitarteko 25 bat ume egozan eta edozein umek behar dituen zaintzak emoteaz ganera, heziketa-proiektu bat landu neban eurakaz. Matematika ikasten genduan, haibat gai ezberdin, idazketa, ipuinak, informatika… Afektibotasun-falta itzela daben umeak dira, eta, horren ondorioz, egundoko atzerapena eta estimulazio-falta itzela be badabe. Beraz, arlo hori be landu behar.

Lan hori astelehenetik ostiralera egiten zenduan, baina asteburuetan Las Brisas auzoko emakumeei zuzendutako okupazio-zentroan aritzen zinan.

Bertako ume eta gaztetxoakaz egiten genduan lana: afektibotasuna lantzeko tailerrak, sukaldaritzako tailerrak, txangoak…

“Ez ginan etengabeko balorazioetan ibili; gehiago oraindik, gu ez gara balorazio horreek egiteko inor”

Merezi izan du bertara joatea?

Bai, euren errealitatea ezagutzeko, eta jaio nazen ingurua balioesten ikasteko, batez be. Euskal Herriko beste neska bigaz izan nintzan Pereiran, eta hasiera batean, denak harritzen ginduzan. Oso gauza gogorrak entzun, ikasi eta bizi genduzan, baina denbora pasa ahala, geure burua gogortu eta egunerokotasunaren beste zatitzat hartzen genduan. Eta ez ginan etengabeko balorazioetan ibili: “beno, hau da hemen dagoena eta aurrera”. Gehiago oraindik, nire ustez, gu ez gara balorazio horreek egiteko inor. Guk ikusi, entzun, ikasi, ahal genduan heinean lagundu eta geure barnean gorde egiten genduan.

Zegaz gelditzen zara?

Bertako errealitate gordinagaz zein bertan emoten diran errealitate ezberdinakaz. Azken batean ikusten dozu denok gizakiak izanda, politikak edo lurraldeen egoerak eta ezberdinak izatera bultzatu ahal gaituela. Dana hain ustelduta ikusten dabe, ez dabela uste euren lurraldea aurrera ateratzeko aukerarik dagoenik. Gehienek ametsa bera dabe: Espainiara joatea. Egunean bizi dira eta haien etorkizuna hurrengo eguna da.

Kooperazioa: baliagarria da benetan?

Alde batetik, bai. Egiten dan edozer ondo dago, eta horretan ez dot zalantzarik. Baina beste alde batetik, ez dot uste hiru hilabetetako kooperazioa irtenbidea danik. Hainbat urteri begira planteatuz gero, bai, beharbada… Zuk ikusi eta momentuan eman ahal dozun laguntza pertsonalagaz gelditu baino ezin dozu egin. Partxe txikiak jarri ahal dozuz –eta bertako jendeak itzel eskertzen dau, ganera-, baina horrek ez dau egoerea konpontzen laguntzen. Horretarako, beste maila bateko neurriak hartu beharko litzatekez. Eta gaiagaz bueltaka zabilz: nahikoa izan da nire laguntza? Erreala?

Super BM berria iritsi da



Aukera gehiago eta prezio baxuagoak

Dohaineko aparkalekuak bezeroentzat

Etxera eramateko zerbitzua

Ordutegia: astelehenetik larunbatera 9:00etatik 21:00etara

Eta zurekin ospatu dugu

Deriora





festa handi baten bidez

Aizkolari biren eta harrijasotzaile biren erakustaldia: harri jasotzea, trontzalariak, korrika...

Dohaineko talo eta sagardo dastaketa

Trikitixak eta txalapartak alaitutako festa

Koldo Agirre, Athleticeko jokalari ohia

“Bidaia bat gabarran zor dit Athleticek”

Koldo Agirre sondikarrak 12 denboralditan jantzi zuen kamiseta zuri-gorria. Ostean, Athleticeko entrenatzaile izendatu zuten, baina ez zuen gabarra ateratzea lortu. Hala ere, lehoiek zorra dute berarekin: 1983an Athleticek Liga irabazi zuen, azken partidan Agirrek zuzendutako Valentziak Real Madril gainditu ondoren.

Nola definituko zenuke zeure burua jokalari moduan?
Garai hartako jokalari euskaldunak oso indartsuak eta kementsuak ziren. Zentzu horretan, nahiko ezohikoa nintzen, teknikako jokalaria bainintzen. Zelai erdian jokatzen nuen, batez ere, eta hori dela eta, “fielato” esaten zidaten egunkari batzuek, jokorako ezinbestekotzat jotzen nindutelako. Beraz, nire errendimenduaren arabera, taldearen jokoa txarra edo ona zen. Merkatuetan dena kudeatzen zutenak fielatoak ziren. Orbaiz bezalako jokalaria nintzen, baina gol gehiago sartzen nituen.

San Mamesen harmailetatik txistu egiten zizuten batzuetan. Zelan hartzen zenuen?
Onartzen nuen; txistuek ez zeukaten eraginik niregan. Are gehiago, zenbat eta txistu gehiago entzun orduan eta gusturago sentitzen nintzen, eta gero eta hobeto jokatzen saiatzen nintzen, txistuak isilarazteko.

Gaur egun ere zergatik egiten zaie txistu teknika handiko jokalari batzuei?
Hemengo jendeari jokalari kementsuak gustatzen zaizkiolako. Txistuak direla eta, bat baino gehiagok txarto pasatu du. Argi dago futbola aldatu egin dela; jendearen pentsaera ez, ordea, eta gure artean zale batzuek antzinako futbolariak gogoan dituzte oraindik.

Zein da zure gogorapenik onena eta txarrena Athleticen?
Onena Madrilen 1958an irabazitako finala

"1977an bost final galdu genituen entrenatzailea nintzela, baina mingarriena UEFA Kopakoa izan zen"

izan zen, 19 urte neuzkala. 0-2 menderatu genuen Real Madril bere zelaian eta hori izan zen nire 9. partida Athleticen. Txarrenak, aldiz, entrenatzailea nintzenean gertatu ziren: 1977an Juventusen kontra UEFAko finala eta Betisen aurka Kopako finala galdu genituen.

1977koa denboraldi ederra izan zen, baina baita tristuraz beteta ere…

Bai, hala da. Denboraldi aurrean udako txapelketetako hiru final galdu genituen (Villa de Madrid, Villa de Bilbao eta Ramon de Carranza) eta denboraldiaren amaieran UEFA eta Kopako finaletan ere porrot egin genuen.

Zein izan zen mingarriena?

UEFAkoa, ezbairik gabe. Athletici ospe handia ekarriko zion. Gure moduko klub batek Europa mailako txapelketa lortzea itzela da, ia miraria, eta oso gertu izan genuen mirari hori. Pena izan zen Bettegak eta Tardellik golak sartzea, baita epailearen jokaera ere… Italiako talde baten kontra, epailearen azkeneko partida… Txarto pentsatu eta bete-betean asmatuko duzu! Eta nik txarto pentsatu nuen.

Etortzen zaizu burura anekdotaren bat?

Madrilen kontrako finalean oso gaztea nintzen eta aldagelara zuzendaritzakoak eta presidentea etorri zitzaizkigun lasaitasuna eta adorea emateko. Orduan, eskatu nion entrenatzaileari jende hori guztia kanpora bidaltzeko eta hain gaztea izanda ere, kasu egin zidan eta jokalariak eta entrenatzailea bera baino ez ginen gelditu aldagelan.

Kide asko eta asko izan duzu Athleticen. Zeintzuk izan dira zure lagun minak?

Athleticeko aldagelan –eta garai hartan, batez ere– denok ginen lagun minak, baina bereziki, hilda dagoen Pedro Iturriaga dut gogoan. Geroago, Txutxi Aranguren eta Fidel Uriarterekin ere harreman ona izan nuen. Ni heldua nintzen eta haiek, ordea, gazteak; beraz, nire semebitxiak izango balira bezala ziren.

Ezer ez lortzearen arantzarik duzu? Ligarik ez irabaztearena, akaso?

Ligarena ez, garai hartan Athletic bezalako talde batean liga irabaztea oso zaila zen, eta gaur egun askoz zailago. Arantzarik ez daukat, baina gogorapen txarrak ekartzen dizkit Zaragozaren kontra galdu genuen kopako finalak. Partida honetan kapitaina nintzen, eta gustatuko litzaidakeen kopa jasotzea, baina ezinezkoa izan zen izugarrizko jipoia eman baitziguten.

Espainiako selekzioarekin 7 partida jokatu zenituen Txileko Mundiala aurretik. Zelango esperientzia izan zen?

Sailkatzeko fasea jokatu nuen Gales eta Morokoren kontra. Espainia sailkatu genuen, eta horren aurreko kontzentrazioan parte hartu nuen. Azkenean, aldiz, ez ninduten mundialera eraman. Etsipen handia ez zen izan espero nuelako, izan ere, nire ideia politikoak direla eta, batzuek ez ninduten nahi.

30 urterekin utzi zenuen futbola. Oso gaztea, ezta?

Belauna nahiko izorratuta nuen. Lehenagoko urtebetea Sabadellen egon nintzen jokatzen, hiru urteko kontratua sinatu ostean. Hala ere, lehenengo denboraldia oso txarto pasatu nuen entrenamenduak hareazko zelaian egiten zirelako, eta nire belauna ez zebilelako batere ondo.

Ibilbidea

Athleticen
–12 denboraldi (1958-1969)
–302 partida
–63 gol
–Bi Kopa: 1958 eta 1969
–Gaur egun zaleen taldeen arduraduna da

–Athletic utzi eta Sabadellen jokatu zuen beste urte bat. 1970an utzi zuen betiko.
–7 partida Espainiarekin

Entrenatzailea:
Bilbao Athletic, Athletic, Hercules, Valentzia, Mallorca, Logroñes, Lleida eta Barakaldo.

Batasuna eta seriotasuna berreskuratzeko deialdia zabaldu du Koldok

"Zelai berri bat behar dugu"

Athleticen jokatzea "dena" izan da, Koldo Agirreren ustez. "Gizon bihurtu naiz klubean; beraz, eskerrak eman besterik ezin dut egin". Hainbeste urte pasa eta gero iritzi aditua da Koldorena, gaur egungo egoerari buruzko ikuspuntua adierazteko. "Gehien kezkatzen nauena Atletiko Madrilen kontrako partidan entzun zen "Lamikiz, kanpora" oihua da. Argi izan behar dugu garena garela eta duguna dugula, eta balitekeela gaur egungo garaia txarra izatea Athleticentzat. Atletico Madrileko jokalari guztiek bakoitzari dagokion selekzioarekin jokatzen dute; gurean, aldiz, batek ere ez".

Denboraldi txarrak direla-eta, "batasuna eta seriotasuna" berreskuratzeko deia zabaldu du sondikarrak. Izan ere, "bakoitzak bere kabuz joaten bada, akabo". Ildo horretatik, ez lituzke hauteskundeak "oraintxe" egingo eta, nahiago du ardura hori gelditu den batzordearen eskuetan utzi.

Etorkizunari begira baikor agertu da Agirre. "Aurten ez ditugu gorriak ikusiko. Garaipenek iskanbilak isilaraziko dituzte". Bere iritziz, "zelai berri bat behar" du Athleticek, etekinak areagotzeko eta "euskal jokalaririk onenak fitxatu ahal izateko". Lezama ere hizpide izan dugu Koldorekin. "Harrobiarekin ahalik eta hoberen lan egiten jarraitu behar dugu, baina lan-talde finkoa egon beharko zen. Batzorde berri bat sartzen denean aurreko lana gelditu, eta ideia berriak jartzen dira martxan. Hori ez da komenigarria lanak iraun behar du eta".

"Nire ideia politikoak direla eta, batzuek ez ninduten nahi, eta agian horregatik, ez nintzen joan 1962ko Txileko Mundiala jokatzera"

Jokatu eta gero, entrenatzaile egin zinen. Zergatik?

Gustuko nuelako. Jokatzen nuenean entrenatzailea izateko gaitasuna nuen. Eragina handia nuen nire taldekideengan, eta jokalarien eta entrenatzailearen arteko bitartekaria nintzen, nolabait esanda.

Athletic utzitakoan, leku batzuetan entrenatzen ibili zinen: Hercules, Logroñes, Lleida, Mallorca… Non egon zinen gusturago?

Alacanten hiru urte eman nituen. Ez zen batere erraza hainbeste denbora segidan entrenatzaile jardutea, are gutxiago orain. Bertan pozik bizi ginen. Entrenatzailearen bizitza nolakoa den jakinda, edozertara moldatzen zara; azken batean, gustuko nuen lan batean ibiltzen nintzen, baina bakarrik ezin nintzen joan. Txartoen pasatzen duena familia da. Alabak txikiak ziren, eta Lleidan eskolak katalanaz besterik ez zituzten ematen. Azkenean Opus Deiko eskola batean sartu behar izan genituen.

Valentzian ere aritu zinen entrenatzaile 1983ko denboraldiaren amaieran. Azken partidan R. Madrili irabazi zenioten, eta ondorioz, alde batetik mailari eutsi zenioten eta bestetik, zure garaipena zela eta Athleticek Liga irabazi zuen Las Palmasen. Erabateko poza…

Bai, noski. R. Madrilek berdindu balu, Liga irabaziko lukeen, baina 1-0 galdu zuen gure kontra. Gainera, gola lortu genuen jokaldia oso bitxia izan zen. Hilabete bi eman nituen Valentzian, eta hasiera-hasieratik jokaldi jakin bat entseatzen genuen; hala ere, ez zitzaigun inoiz ateratzen, azken partida horretan lortu arte: korner batean Ariasek ukitu zuen baloia, eta bigarren zutoinean zegoen Gordillok sarean sartu zuen. Hori da Athleticek zor didana: hau da, ez ninduten gabarran paseatzera gonbidatu (kar, kar).

Taldearen mailari eusteko laguntza eman arren, ez zenuen bertan jarraitu. Zergatik?

Naizen modukoa naizelako. Denboraldi hartako amaieran hauteskundeak zeuden Valentzian, eta horien emaitzak ezagutu baino lehen, presidenteak kontratua luzatzeko aukera eman zidan. Ni ez nengoen ziur berak hauteskundeak irabaziko zituen edo ez. Azkenean ez zituen irabazi, eta alde egin behar izan nuen.

Bilbao Athletic ere entrenatu duzu…

Bi aldiz. Azken aldian 2. mailan geunden. Nik utzi eta hurrengo urtean 2.B mailara jaitsi ziren. Eta Athleticeko Gazte Taldeak ere zerbait irabazi duen azken aldia nirekin izan da, Sorian Betisen kontra, alegia.

Eta orain Athletic ordezkatzen duzu…

Zale taldeen koordinatzailea naiz. Ekitaldi askotara joan behar dut, eta oso gustura nago. Orain dela gutxi zale talde baten aurkezpenera joan ginen La Palmara. Athleticeko plaka eman nionean negarrez hasi zen bertoko kide bat. Oso hunkigarria da hain urrun egonda ere, hain zale amorratua izatea.

"Duela gutxi La Palman inauguratu genuen talde bat. Athleticeko plaka eman nionean negarrez hasi zen bertoko kide bat"

Atletico Madrilen kontrako Koparen kanporaketa 1966an San Mamesen. *Argazkia Elorza. Athletic Club artxiboa*

Sondikan jaio zinen, eta bertan ere azaldu ziren Athleticeko emakumeen futbol taldearen aitzindariak. Zer deritzozu emakumeen futbolari?

Patxi herriko apaizak sortu zuen Sondikako emakumeen taldea, eta gero atezainarekin ezkondu zen. Hainbeste emakumerekin kontuz ibiltzeko ohartarazi nion, baina ez zidan jaramonik egin (kar, kar). Txantxarik txantxa, ondo deritzot. Zergatik ez dute emakumeek futbolean jokatuko, beste kiroletan aritzen badira, ba! Gainera Athleticentzat oso arrakastatsuak izan dira lehenengo hiru urteak. Era berean, zaleentzat ere oso pozgarriak izan dira, izan ere, gizonezko taldeak irabazi ez zuena, neskek lortzen zuten.

"Sondikako apaizak emakumeen taldea sortu zuen eta atezainarekin ezkondu zen"

Testua eta argazkiak: Gaizka Eguskiza

Jon Basaldua, Mañarikua egoitzaren zuzendaria

“Emantzipatu nahi duten txorierritar gazteak ere hartu nahi ditugu”



Derioko garai bateko seminarioan hainbat apaizgai ibilitako leku eta gelak beterik daude berriro ere. Zati handi bat Mañarikua egoitzak hartzen du. Hura gazteentzat pentsatutako bizilekua da. Jon Basaldua egoitzaren zuzendariarengana jo dugu gehiago jakiteko.

Testua eta argazkiak: Bestorrene

Jon Basaldua, Mañarikuaren zuzendaria

Noiz sortu zen eta zergatik?

Hasieran, orain dela 14 bat urte, Novia Salcedo fundazioak ikasleentzako egoitza moduan sortu zuen. Berez, Apezpikutzapean dago eta azken 7 urteetan geuk (Suspergintza) gestionatu dugu.

Zelakoak dira egoitzako bezeroak?

Guztira, 80 leku ditugu, gehienak banakako logeletan eta % 85 inguru beteta izaten dugu.

Esan dudan bezala, ikasleentzat sortu zen, baina laster Athleticeko jokalari gazteek ere ostatua hemen hartzea erabaki zuten. Gaur egun, helburu hau dugu: gazte-egoitza izatea eta, ikasleentzat ez ezik, hona lanera datozenentzat ere izatea. Baita oporretan etorri edo independizatu nahi duten ingurukoentzat ere.

Egoile gehienak Leioako Unibertsitatekoak dira eta haien barruan oso kolektibo garrantzitsua dago: Arte Ederretako ikasleak. Hemen estudio bat dute pintatu ahal izateko. Baina beste egoile mota bat ere bilatzen ari gara: Txorierriko edozein gazte, independizatu nahi duena eta urte batean edo bian pisu batean baino hemen egon nahiago lukeena. Azken batean, pisu bat erostea edo alokatzea zaila izaten da, lagunak aurkitu behar izaten dira partekatzeko… Elkarbizitza zailagoa izaten da. Hona etortzea beste aukera bat da.

Zein da hemengo bizimodua?

Europar modeloa hartu zen hasieratik. Ez dago irteteko eta sartzeko ordutegirik… Hori txorierritar gazteentzat erakargarria izateko beste motibo bat da. Badira kolektibo batzuk kontrol gehiago eskatzen digutenak; guraso batzuk, adibidez, Athleticek... Kirolariek oheratzeko ordu jakin bat izaten dute: 23:00etan; altxatzeko beste bat: 8:00etan; jana zaindu behar dute... Badugu pertsona bat arau berezi horiek betetzen direla egiaztatzen duena. Beste guztiek euren bizimodua egiten dute, askatasun

Sara.– "Errioxakoa naiz eta gustura nago hemen. Leioan Publizitatea ikasten dut. Nire bigarren urtea da. Pisu bat konpartitzea merkeago dela uste dut, baina hemen hobeto nago, giroa hobea da".



Mikel.– "Iruñekoa naiz. Athleticeko diziplinapean 26 gaude: 24 mutil eta 2 neska. Ikasi eta jokatu egiten dugu: nik Vasconian, hirugarren mailan. Atheticek arau batzuk jarri ditu hemen eta bete egin behar ditugu: ohera arin joan, ezin izaten gara irten, ez edan, ez erre. 7 urte daramatzat hemen".

osoz. Otorduak egiteko, aukera bi izaten dira: alde batetik, jantoki zerbitzua, gosaldu, bazkaldu edo afaltzeko, eta, bestetik, nahi duenak bere bazkaria presta dezake, horretarako sukaldeak armairuak eta hozkailuak baititugu, bakoitzak bere janaria gordetzeko. Eta egun batean prestatu nahi ez baduzu eta jantokian jan nahi baduzu, bada ez dago arazorik. Telebista gela ere badago, ordenagailu gela, wifi zerbitzua...

Elkarbizitza arazorik izan duzue?

70 lagun bizi diren lekuan beti egon daiteke zer edo zer, baina giroa ona izaten da. Iluntzean oso giro ona egoten da hemen, eta, gainera, ekitaldi batzuk antolatzen ditugu urte osoan, giro on hori bultzatzeko. Ez da izaten aparteko arazorik. Logelak bakarkakoak izatea ere lagungarria da. Esan daiteke hemen bizi den askatasun giroak lagundu egiten duela.



San Martinak badatoz; beraz, adi egon!

San Martin eguna laster izango da, eta, horregaz batera, Zamudioko jaiak etorriko jakuz. Hiru egunetan kalejirak, kontzertuak, txapelketak-eta egongo dira herrian. Beste alde batetik, idi-probak egingo dira azaroaren 2an, 3an eta 4an eta azoka azaroaren 5ean.

Enara Artetxe Sanchez zamudioztarra, kartelaren egilea:
"Koloreekin lan egitea gustatzen zait, koloreen bidez giroak sortzea. Zamudioko kartel lehiaketarako jai-giroa iradokitzen duen lana egin nahi izan dut, horregatik bizitasuna eta indarra adierazten dituzten koloreak aukeratu ditut. Azken batean, kartelaren helburua jendearen arreta erakartzea da".







Zamudiko jaiak Gora San Martin!

GANDIAGA

CEMAN CONSTRUCCIONES

ZURE BIDAIA-AGENTZIA

VIAJES BIDAIAK NUEVOS HORIZONTES

TALLER 8, LNJ 6. 48170 ZAMUDIO BIZKAIA

BEBE - EDER

GARAGARRO JAIA

Crazy Guitar

BAR RAFI

Café Fernan

ESTILISTA EVA ARDINES

AmAr

ITZISA

Jai egitaraua

Azaroaren 10a, barikua (San Martin bezpera)
19:00: Txupina. 2006ko San Martinetako Kartel Lehiaketaren irabazleari saria emotea
19:10: Karameluen jaurtiketa
19:15: Kalejira, txistulari eta trikitilariakaz
20:30: Fanfarrea
23:30: Kontzertuak: Kriston + Idi Bihotz + Amaiur

Azaroaren 11a, zapatua (San Martin)
09:00: III. Odoloste Txapelketa
11:30: Kalejira
12:00: Meza Nagusia
13:00: Harrizulatzaileen arteko desafioa: Zamudio vs. Sondika
13:30: Odoloste Txapelketaren Sari Banaketa
15:00: Herri bazkaria Adintsuen Etxean

19:30: XVI. San Martin kontzertua: Rafa Bakero (gitarra) eta Nuria Orbea (sopranoa)
23:30: Kontzertuak: Gozategi + Kaotiko + Txato Plato

Azaroaren 12a, domeka (San Martintxu)
11:00: Meza Nagusia
11:30: Kalejira txistulariakaz
12:30: Dantza agerraldia
16:00: Mus eta Briska Txapelketa
18:00: Pailazoak: Txirri, Mirri ta Txiribiton junior

Zer entzun eta zer ikusi

Kriston: Bermeotik dator boskote hau. Rock melodikoa lantzen dute eta euren lehenengo diskoa *Ni, Zu…Gu* aurten kaleratu da.
Idi Bihotz: Bilbokoek euren lehenengo zuzeneko CD-DVDa Santurtzi eta Ansoaineko jaietan grabatu eben. Taldeak 6 disko ditu merkatuan; berriena: *Odola sutan*. Heavy, heavy.
Gozategi: Orioko taldeak ez du aurkezpenik behar. *Gozategi, Ainhoa, Kalanbreak* eta *Egunon* dira gaur arte argitaratutako lanak.
Kaotiko: *Destino escrito* punk taldearen azken lana dogu. Apirilean kaleratutakoa, ganera.
Txato Plato: Markina-Xemeineko boskoteak "punk xelebrea" egiten dute.

Gozategi taldea

Zamudio Sondikaren kontra

Gure eskualdean oraindik oso ezagunak ez badira be, harrizulatzaileen probak pixkanaka-pixkanaka berton lekua topatuz doazala ezin dogu ukatu. Eta, euren inguruan gero eta jende gehiago batzen dala horren lekukoa da. Aurtengo jaietan proba berezia izango dogu: Zamudio eta Sondikaren arteko desafioa. Bertan Zamudioko Iñigo Aurrekoetxeak Sondikako beste hiru harrizulatzaileen aurka egingo dau. Probean Aurrekoetxeak harrian 6 zulo egin beharko ditu eta aurkari bakoitzak bi. Ea nork amaitzen dauan lehenen! Zamudiokoak ez dau erraz izango, baina egin ahalak egingo dituela ziurtatu deusku.

Mortzila goxoak egiteko sekretua: kalitatezko kinpulea eta lehengaiak

Mª Carmen Furundarena izan zan iazko Mortzila Txapelketaren irabazlea. Etxean urteetan egin dabez mortzilak, eta horregaitik, ondotxo ezagutzen dau beharra. "Izan be, ikasten dana ez da ahazten". Hain mortzila goxoak egiteko sekretua zein dan galdetzen jakonean, argi dauka: kalitatezko kinpulea eta lehengaiak izatea. "Hori guztia ondo egoztean dago asuntoa". Aurten be parte hartuko dau txapelketan. "Bueno, irabazi ez da beti egingo, baina animatu behar da; osterantzean, ohiturak galdu egiten dira".

Zamudioko Mortzila Txapelketa San Martin jaietako hitzordurik inportanteenetarikoa da. Aurten 3. edizioa beteko da azaroaren 11n, goizeko 9etan, izango da frontoian. Txapelketan parte hartu nahi dabenek azaroaren 7a baino lehenago emon behar dabe izena Udaletxean edo **94 406 09 98** telefono zenbakira deituta. Epaimahaiak 3 sari banatuko ditu: 300 €, 200 € eta 100 €. Beraz, prestatu lapikoak!



Azokak 22 urte beteko ditu aurten

Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Azoka Zamudion antolatzen diran ekitaldirik erakargarrienetarikoa da, zalantza barik. Azokak 22. edizioa beteko dau aurten. Azaroaren 5ean egingo da Kotxozulo parkean. Bertan, 60 bat ekoizlek parte hartuko dabe, eta aurkeztuko diran produktuen artean hurrengo honeek aitatzekoak dira: txakolina, barazkiak, ogia, txarrikia… Zamudioko ganadu erakusketea be izango da, eta Limousin Bizkaiko Txapelketa egingo da azokaren barruan. Txapelketari aurreko egunean –azaroaren 4an- emongo jako hasierea eta bertan 106 bat buru egongo dira.

Idi-probak

Beste alde batetik, idi-probak egingo dabez azaroaren 2an, 3an eta 4an, iluntzeko 9ak inguruan, Zamudioko probalekuan. Bertan karpa bat ipiniko dabe, eta sarrera doan izango da. Buztarriek 3 tonako harria erabili beharko dabe. Idi-probak Zamudioko Lagun Probazaleak taldeak antolatuko ditu, Udalaren laguntzeagaz. Guztira, 9 sari emongo dira, eta txapeldunak 800 euro, trofeoa eta mantea jasoko ditu. Horrezaz ganera, 300 euroko saria emongo deutsie postu altuena lortzen duan zamudioztarrari. Idi-ak pisu librekoak izango dira.

AIKOR! aldizkarian publizitatea jarri gura baduzu deitu telefono honetara: **94 452 34 47** edo e-mail bat bidali **aikortxori@yahoo.es**

Etorri eta ikusi; komertzioaren jaia, Derion

Urriaren 21etik 28ra bitartean Euskal Komertzioaren VIII. Astea ospatu da "Ezberdina izan, lehiakorra izateko" lelopean. Asteak euskal komertzioari, eta bereziki hiriko komertzioari, laguntzea eta bultzatzea zuen helburu; horretarako, ekitaldisorta zabala antolatu zen hainbat herritan. Eta Txorierri ez zen salbuespena izan. Seminarioaren inguruan jaialdi erraldoia izan zen urriaren 21ean, Derioko Dendari eta Zerbitzuetako Elkartearen eta Ostalarien Elkartearen eskutik. Horiek "Etorri eta ikusi" slogana hartu zuten lelotzat eta goiz osoan zehar zenbait ekintzaz gozatzeko aukera egon zen bertan. Umeei zuzendutako puzgarriak eta jolasak izan ziren eta Euskaltel-Euskadi taldeak bizikletaz egiteko ibilbidea antolatu zuen. Txakolin zein pintxo dastaketa ere egin zuten eta Kaiku enpresak emandako jogurtak eta batidoak banatu ziren. Halaber, txu-txu tren bat jarri zuten, jendea herritik Seminariora eramateko.

Herria sortuz

Dendari eta Zerbitzuetako Elkartea sortu zenetik hona Derioko eragile aktiboa izan da. Eta horren lekuko dira herrian antolatzen dituzten ekitaldiak. Azkena irailaren 30ean egin zuten. Elkartearen 14 komertzio kalera atera eta herritarrei hurbildu zizkieten euren produktuak: osagarriak, opariak, zapatak, elektrotresnak… "Helburu bikoitza izan dugu: alde batetik, genuen stocka saltzea eta beste alde batetik, herrian behar den besteko komertzioa badutela derioztarreei jakinaraztea", azaldu digu Jose Ignacio Perea elkartearen presidenteak. Deriostock ekitaldia San Migel jaien programaren barruan antolatu zuten eta harrera ezin hobea izan zuen, bertara ehunaka lagun hurbildu zireneta. "Giroa zein herria sortzen ditugu eta hori gure bazarik onena da merkataritza-guneen aldean".

luz zamudio

OSKARBI fotografoak

Vértigo

Zamudiko jaiak Gora San Martin!

hotela jolbaco arotxarte

Magalarte Txakolina

VP

MARMOLERÍA TXORIERRI
MARMOLDEGIA
Sukalde eta bainugeletako harriak fotzada, ataria eta hilerriak

Bocateria otarteko Pizzeria

Kudeaketarako Sozietatea
Birziklatzeko Zentro Aurreratua
SOGECAR
Tratamendu lerroak
-Erabiltzeko olioak
-Agortutako lehunak
-Urozbeltzerleak
-Automozio
hondakinen kudeaketa osoa
Torrelarragoiti Ind. z/g 48170 Zamudio
Telefonoa: 944 977 177 - Faxa: 944 522 619

BAR TXIKI
TORTILAK

HORTZ KLINIKA
Ikria Zabiota

IKA IKUSLAN

LEANDRO LANDETA
HARANITZKA IDOAITZKA

Larrabetzuko Bertso Eskola

“Herri mugimenduko beste eragile bat gara”

Larrabetzuko Bertso Eskola orain 20 bat urte sortu eben. Garai haretan helduei zuzendutako bertso eskola zan, baina uriko umeak gogotsu etozan eta euren lekua errebindikatu eben bertan. Bertso Eskola umeentzako gune bihurtu zan eta bere ibilbidean zehar hainbat arduradun eta irakasle izan ditu, “Txiplas” eta Lopategi bertsolariak horreen artean. Orain dala lauzpabost urte bertso eskola berrindartzea erabaki eben. Etxahun Lekue arduradunetariko batek emon deuskuz azalpenak.

Testua: Itxaso Marina / Argazkiak: Larrabetzuko Bertso Eskola

Zertan datza berrindartze hori?
Astean behin 6-8 lagun batzen ginan Bertso Eskolan, baina gurea bertso eskolak emotea baino zerbait gehiago izan behar zala argi genduan: herri mugimenduko beste eragile bat izan behar ginan eta Larrabetzun bertsoen inguruan egiten zan guztia guregandik urten edota gure eskuetatik, behintzat, pasatu behar zan. Matrikulazino kanpainari ekin geuntsan, klaseak emoten hasi ginan apurka-apurka eta hartuemonetan jarri ginan uriko beste alkarte batzuekaz, urtean zehar hainbat saio alkarregaz antolatzeko. Halan, Gabonetako saioa Hori Baigaz batera prestatzen dogu, bertso-poteoa Herriko Produktuen Azoka egunean egiten dogu euskera alkartegaz batera eta bertso saioak antolatzen doguz Andra Mari eta San Emeterio jaietan.

Gaur egungo Bertso Eskola helduei zein umeei zuzenduta dago. Dagoaneko helduok batzen hasi zarie Bertsolari Txapelketari begira eta umeentzako eskola aza-

“Guztiok dogu Txapelketaren pisua eroateko beharra aurten”

Urriaren 8an Bizkaiko Bertsolari Txapelketari hasiera emon jakon Zamudion. Lekue zuzenean sartu da azken finalaurrekoan. Hori abenduaren 3an izango da Durangon.

Zelan ikusten dozu aurtengo txapelketea?

Polita izango da. Bizkaiko bertsolaririk onenek ez dabe parte hartuko aurten eta hori dala-ta, besteok konpromiso berezia hartu dogu: erakutsi behar dogu Bizkaiko bertsolaritza ez dala bakarrik Unai eta Igor eta berton bertsolari asko eta giro itzela dagoala. Txipa aldatu dogu: lehen Unai eta Igorrek emoten eben maila ona eta besteok ahalegindu behar ginan maila horretara ailegatzen, baina oraingo honetan guztiok dogu Txapelketearen pisua eroateko beharra. Eta morboa be egongo da, txapeldun barria izango dalako, finalista barriak… Txapelketa on bat aterako da, ziur nago.

Faboritorik?

Bat ez neuke asmatuko esaten. Aurreko txapelketaren finaletan ibili diranak eta beste pare bat be sartuko neukez faboritoen artean.

Emakumezkoren batek irabaztea ez legoke txarto, ezta?

Ez, eta harritzekoa be ez litzateke izango. Iratxe Ibarrak ez dau huts egingo eta besteok irabazi nahi badeutsagu, ondo egin beharko dogu bertsotan. Eta finalean inoiz sartu ez badira be, Ointza eta Oihane be ondo ibiliko dirala uste dot.

Eta zu, zelan ibiliko zara?

Beno, abendura arte badaukat prestatzeko astia. Azken aldian oso gustura nabil bertsotan eta dagoaneko Xabi eta Fredi Paiagaz eta Arkaitz Estiballesgaz hasi naz Txapelketea serioago prestatzen. Jo eta ke arituko gara!

roan hasteko asmoa dozue…

Hori 12 urtetik gorakoei zuzenduta dago. Zergatik? Bizkaiko Bertsozale Elkarteak badau proiektu bat Txorierriko eskoletan, hezkuntza arautuan bertsolaritza zabaltzeko; eta, ondorioz, 6. mailako ikasle guztiek bertsolaritza emoten dabe. Baina hutsunea hortik aurrera dago. Institutuan be badago bapateko talde bat –ikasle guztiak Larrabetzukoak dira-; halan be, bertan bertso klaseak baino ez dira emoten. Gure eritxiz, bertsogintza kontzeptu zabalagoa da: bertsolariak sortu behar dira, baina bertsozaleak be bai, gai-jartzaileak, epaileak… Mundu horren inguruan dagoan mugimendu osoa, azken baten. Eta hori da, hain zuzen be, gure eskolatik bultzatu gura doguna.

Zelan antolatuko dozuez aurtengo klaseak?

Eskola 12 urtetik gorakoei zuzenduta dago, ikasleak oinarri bategaz etortzea gura dogulako. Baina ikasle bakotxak zer eskatzen eta zer behar dauan kontuan hartu beharko dogu, plangintza egiteko orduan. Dana dala, klaseak bapatekora zuzendu nahi doguz, idatzizkoa be lantzen jarraitu arren. Eta helburu handi barik: ez dogu hemendik lau urteetara 8 bertsolari ateratzeko asmorik; bat ateratzen bada, ondo baino hobeto, baina ez bada holan gertatzen, bertsozaleak atera daitezala, gai-jartzaileak… Beste alde batetik, Euskadiko Bertsozale Elkarteak material barria argitaratu dau eta hori gurean zelan ezarri aztertuko dogu.

Etorkizuneko bertsolaririk dago gaztetxoen artean?

Bai, baina ez bakarrik bertsolari onak izango diralako, oso zaleak diralako baino. Badago talde bat Larrabetzuko saio guztietara etortzen dana, institutuan aukerako ikasgaitzat hartu dabe bertsolaritza, harremana dabe Euskal Herriko beste gazte bertsozale batzuekaz… Beraz, talde hori bertsozalea da eta bertsozale izaten jarraitu dagiela da helburua.

“Bertsolariak sortu behar dira, baina bertsozaleak be bai, gai-jartzaileak, epaileak… Mundu horren inguruan dagoan mugimendu osoa, azken baten”

“Bertsolariak bertsozaletasunik ez dagoan herri bateko areto batera eroatea gatxa da, baina jentea dagoan lekura eroan ezkero, giroa sortu leiteke bertsoen inguruan”

Herri mugimenduko beste eragile bat izateko asmoa dozuela aitatu dozu lehen. Soberan bete dozue hori…

Gabonetako saioak 12. edizinoa beteko dau aurten eta horrezaz ganera, badagoz beste ekitaldi batzuk be jendetza handia erakartzen dabenak: “Balkoitik balkoira” jaietan egiten dan saioa, azokako bertso-poteoa… Urtean zehar antolatzen doguzan bertso saio guztietara 50 bat lagunek osatutako taldea etortzen da eta horreetako batzuk be beste herrietan egiten diran ekitaldietara joaten dira. Zaletasuna dago herrian eta horrek lan egiteko gogoa emoten deusku, izan be gure lanak erantzunik ez baleu izango, guk bertsotan egingo geunke eta kito. Beste alde batetik, polita izango litzateke Larrabetzutik plazara bideratutako beste bertsolariren bat ateratzea, nire aurpegia lar ikusita dozue-eta… Baina hori ez da helbururik nagusiena. Inportantena hurrengoa da: Larrabetzun giroa sortzea eta norbaitek bertsolaritzaren inguruko zerbait antolatu gura izan ezkero, norengana jo jakin dagiala. Eta holan, herriak proposatzen deuskunari erantzuten jarraituko deutsagu eta guk be proposamenak egingo deutsaguz.

Larrabetzun bertsozale asko dagoala argi dago, baina Txorierriko beste herrietan?

Badagoz, baina gitxiago. Larrabetzun Bertso Eskola urteetan egoteak eragina izan dau horretan, izan be aspaldi honetan berton Txorierri osoan baino bertso saio gehiago egin dira, ziur asko. Zer egin beste herrietan be bultzatzeko? Nire ustez, bertsolariak bertsozaletasunik ez dagoan herri bateko areto batera eroatea gatxa da, baina bertsolari horreek jentea dagoan lekura eroan ezkero –ermiten inguruan egiten diran jaietara-eta, esate baterako-, giroa sortu leiteke bertsoen inguruan, agian.

Lezamako Uzta Eguna: txakolina protagonista

Eguraldi ezin ederragoa eta giro ezin hobea. Urriaren 1ean, domekaz, Uzta Eguna izan zan Lezaman eta bertako plazaraino jendetza handia hurreratu zan goiz osoan zehar. Luis Ramon Alvarez Lezamako alkatea, Iñaki Gastañaga Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Zuzendaria eta Txorierriko alkateak egon ziran, besteak beste.

Goizeko 10:30ak inguruan hasierea emon jakon Lezamako Uzta Egunari. Bertan Txorierriko 8 txakolingilek eta Galdakaoko txakolingile batek parte hartu eben eta guztiek eben Bizkaiko Txakolina jatorrizko deitura. Txakolina egunaren protagonista ukaezina izan zan: 1.500 kopa saldu ziran eta Deia egunkariaren datuen arabera, 500 litro txakolin banandu ziran. Horrezaz ganera, aurtengo uztaren lehenengo mostoa dastatzeko aukerea egon zan eta zaporeztatu ebenen esanetan, oso azukre maila altua eban. Datu pozgarria hori.

Beste alde batetik, 23 gastronomia-postu eta eskulangintza-postu bat jarri ziran eta ekoizleek aurkeztu zituen produktuen artean hurrengook dira aitatzekoak: gazta, txokolatea, emú-okela, barazkiak… Taloa txorizoagaz, pintxoak eta ogitartekoak saltzen zituan txosna bi egon ziran eta Laiak emakumeen alkarteak eta Behar Bidasoa gobernuz kanpoko erakundeak be eduki eben txokoa, euren lana eta proiektuak jendeari ezagutzera emoteko. Halaber, umeei zuzendutako gazta-tailerra eta jolasak antolatu zituan eta bertsolariak plazan aritu ziran.

Argazkiak: Asier Sanz eta **AIKOR!**



MARMOLGINTZA
GOYO
SIKALDE GAINTKOAK
OBIAK ETA HILERRIAK

CAFETERIA
IAZI
Egunero menua eta
Menu berezia

Carnicería
Charcutería
IMAZ

Biblia, euskaraz eta sarean

Esloveniako Bibli Elkarteak sarean jarri ditu Bibliaren testuak **www.biblija.net** web orrian. Testuok eslovenieraz, ingelesez, frantsesez, nederlanderaz, espainieraz, katalanez eta euskaraz irakur daitezke.

Hizkuntzotariko bakoitzean onartuak dauden Bibliaren bertsioak jasotzen ditu web orri honek. Euskarazko bertsioa Elizen Arteko Biblia da eta Bibliaren liburu guztiak biltzen ditu: Itun Zaharra, Liburu Deuterokanonikoak eta Itun Berria.

Beste alde batetik, web orriak bilaketak egiteko aukera eskaintzen du. Horiek era bitan egin daitezke: Bibliaren erreferentziaren nahiz testu librearen arabera.

Arroz-alearen tamainako haririk gabeko txipa

HPko ikertzaileek Memory Spot haririk gabeko txipa atera dute. Hori arroz-alearen tamainakoa da eta 256 KBtik 4MBra arteko memoria gordetzeko ahalmena du. Halaber, datuak 10 MB/segunduko abiaduraz transferi ditzake haririk erabili gabe. Gordetze-ahalmen horri esker, txipak bideo-klip txikiak, argazki digitalak eta hainbat testu-orrialde izan ditzake.

Memory Spot txipak ez du bateriarik behar, izan ere datuok irakurri eta idazteko erabiltzen den dispositiboak hornitzen dio energia. Txipan gordetako datuetarako sarbidea dispositibo anitzetatik egin ahal izango da, adibidez bereziki hornitutako sakelako telefonoetatik.

Hamaika Telebista jaio da

Irailean, Hamaika Telebista Hedatzeko Taldea aurkeztu zuten Bilbon. Proiektuak helburu bikoitza du: alde batetik, euskaldunoi telebista euskaraz ikusteko aukera eskaintzea eta, bestetik, eskualde bakoitzean euskarazko telebistak sustatzea. Proiektuarekin honako hauek egin dute bat: Corporación Multimedia del Norte (Deia-Noticias); Euskal Komunikabideak Hedatzeko Elkartea (Gara-Le Journal); Euskarazko Komunikazio Taldea (Berria-Hitza); Elkar editoriala, Euskaltel eta Bainet produkzio-etxea.

Bide ertzean

Rafa Rueda

Txuma Murugarren

Gaurko musika Euskal Herrian (Hotsak)

90. hamarkadaren bukaeran Deba Beheko lagun talde batek sortua da. Ordura arte kontzertuak antolatzeaz soilik arduratzen ziren, baina aurrerapauso bat emateko nahiarekin, Gaztelupeko Hotsak diskoetxea sortzea erabaki zuten, Gipuzkoako Soraluze herrian.

Hasieratik ezezagunak baina kalitate handiko talde txikien aldeko apustua egin izan dute eta, honekin batera, euskal musikak gaur egun dituen estilo ezberdinak garatzeko abiapuntua izan dira.

Diskoetxe honen eskutik heldu zaizkigu euskal musikaren historian sortutako disko kolektiborik onenak: *Zaharregia, txikiegia agian* (M. Urdangarin, K. Uriba, B. Mendizabal…) eta *Ehungarrenean hamaika* (Gari, Ken7, R. Rueda, X. Montoia…). Hauetariko talde askok diskoetxearekin batera egin dute aurrera. Adibiderik nabarmenena Mikel Urdangarinen kasua da, 6 disko kaleratuz diskoetxe honekin. Eta azken finean, disko guzti hauekin euskal musikaren eta konposatzaileen irudia berpiztea lortu da. Diskoetxe txikia izatearen abantailetako bat duen jarrera dinamikoa da, eta hau horrela dela ikusteko, nahikoa da euren katalogo zabalaren erreferentziei begiradatxo bat botatzea:

–Sexty Sexers: Berako punk-roch talde gaztea.

–Atomog: elektronika frip-hop.

–Rafa Rueda: pop britaniar puntuarekin.

–Zafari Project (be-bop): Euskal Herriko jazz munduan dagoen promesarik handiena.

–Sharon Stoner: zuzenean aritzen den banda indartsu eta sendoena, Oñatitik.

Gaztelupeko Hotsak-en laguntzarekin 2002ko udazkenean Errabal zigilua sortu zen, zentzu zabaleko jazz etiketa izango duten diskoak argitaratzeko asmoz. 2004-ko udazkenean Debajazz sortu zuten. Hasieratik, proiektu honen xede nagusia Deba Behereko herrietara kalitatezko jazz emanaldiak ekartzea izan da, eta hau ere lortu dute.

Argi dago bere eskualdean erreferente kultural bihurtu dela eta baita beste guztiontzako ere kontuan hartzeko erreferente oso interesgarria.

Testua: Zigor Apraiz / Argazkia: Hotsak

Zozketa

Joseba Gotzonen zozketaren irabazleak hurrengo hauek izan dira:

–**Jose Antonio Gonzalez:** Bilboko kontzerturako sarrera bi.

–**Ane Zarandona:** kamiseta bat.

–**Isabel Bilbao:** disko bat

–**David Gonzalez:** disko bat

–**Mª Nieves Revilla:** kamiseta bat

Mugarriz mugarri, Lezaman zehar

Irailean Lezamako I. Mugarriz Mugarriko Martxa egin zan, "Herri-bideak berreskuratu eta berrerabili" lelopean. Martxa Lezama Bizirik alkarteak antolatu eban, herriko jai batzordearen laguntzagaz. Izan be, ibilaldi hori Andra Mari jai-egitarauaren barruan egin eben.

Eguraldi zoragarria eta giro ezin hobea. Lezamako I. Mugarriz Mugarriko Martxa guztiz arrakastatsua izan zan. Herriko plazan goizeko 8:30ean hasi eta eguerdiko 2etan ailegatu ziran Legina auzora atzeratuenak. Ibilbideak 22 kilometro zituan; halanda be, batzuek Kurutze auzoan hasi eben martxa. Azken horreek 13 kilometro ibili behar izan eben. Guztira, 64 lagunek parte hartu eben martxan: horreetako 38k ibilbide osoa egin eben eta beste 26ak ibilbide erdia.

Nekerik ez. Partehartzaileek Lezamako mugak ezagutzeko aukerea izan eben: Larrabetzu, Gamiz-Fika, Zamudio eta Galdakao. Horrezaz ganera, herriko kamino zahar batzuk be deskubritu zituen ibilbidean zehar. Behar horretan antolatzaileen laguntza euki eben; izan be, egin beharreko bidea seinaleztatu eben gezi gorriz lurrean eta plastikozko tira zurigorriz basoetan. Eta tipi-tapa ibili ziran Lezamatik barrena txangolariak: gazteenak 6 urte zituan; zaharrenak 64. Lezamakoak 35 lagun ziran; gainontzekoak kanpotarrak.



Ibilbideko zatirik gogorrena Ganguren mendira igotea izan zan, bertan 400 metroko desnibela izateaz ganera, bero handia egoalako. Osterantzean, galdetu degiela ibilbide osoa txirrindulaz egin eben hiru lagunei! Baina indarrak non barritu be euki eben, antolatzaileek ibilbidean zehar lau anoa-postu atondu zituen-eta.

Lezamako I. Mugarriz Mugarriko Martxak apurka-apurka galdu egin diran kaminoak eta bidezidorrak ezagutzea ez ezik, barriro erabiltzea be izan dau helburu nagusi. Eta hain arrakastatsua izan da, hitzordua be jarri dabela hurrengo urteari begira. Gauza barriak antolatzen ahaleginduko dira: lasterketaren bat, ibilbideko tokirik adierazgarrienak nabarmentzea… Dana dala, ziurra dana hurrengo hau da: datorren urtean be Lezamako ahaztutako inguruak barriro deskubritzeko aukerea izango dabela.

"LAIA HOTEL MUSEOA"

Derion kokatuta, berau da hotel ekologiko bakarra energia berriztagarrien sistemei esker.

Hidromasajeaz hornitutako 38 gela ditu. Gainera, euskal gastronomia dastatu ahal izango duzu, antzinako errezetak zein sukaldaritzarik berritzaileena.

Spa zentroak relax zirkuitu hau eskaintzen dizu: sauna, vaporiuma, jacuzzia eta dutxa inguratzailea.

LAIA

Parke teknologikoa

Eraikina 806. Derio (Bizkaia)
Tel. 94 431 76 80
Fax 94 431 76 81
laia@saviat.net
www.saviat.net

Aurreko galderaren erantzuna:
Sondikan
Irabazlea:
Bihozne Zarate

LEHIAKETA

Asmatu galdera eta bi lagunentzako asteburu batean gau bat pasa Laia Hotel Museoan, gela bikoitza, buffet-gosaria eta Spa zirkuitua, barne. Hilabete honetako galdera zera da:

Nola du izena Lezaman sortu berri duten elkarteak?

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehenago, telefonoz (944523447), e-mailez (aikortxori@yahoo.es), edota postaz (**AIKOR!** aldizkaria, Aresti kalea 2, 48016, Zamudio).

(Saria Laiaren eskaintza duzue).

Sukaldaritza

Etxeko sukaldaritza

Kafe edo Toffe zaporezko tostadak

Maite Lekerika

Osagaiak:
–750 cl. esne
–60 g. artirina (maicena)
–30 g. ogi-irina
–lauzpabost koilarakada azukre
–kanela-txotx bat (txikiak badira, 2)
–kanela-hautsa
–edalontzi bat kafe hutsa edo 2 koilarakada kafe-hautsa
–hiruzpalau arrautza
–Ur apur bat
–Olioa

Prestatzeko era:
Uretan kanela eta azukrea irakingo ditugu, horiek gutxitu arte. Litro erdi esne eta kafea gehituko dugu. Beste alde batetik, soberan dugun esneari (hotz egon behar da) artirina eta ogi-irina bota eta irabiatuko dugu. Kazolakoa irakiten dagoenean, nahasketa hori gehituko diogu eta 4 minutuan su eztitan utziko dugu egosten. Ondoren, orea molde edo bandeja batera (karratua eta bustia) botako dugu, eta ordu parte batean sartuko dugu hozkailuan. Atera, karratuan ebaki, eta irina eta arrautzarekin frijituko ditugu tostadak. Zerbitzatzerakoan (tostadak epel badaude, hobeto), azukrea eta kanela-hautsa botako ditugu gainetik.

Tripakiak zizekin

Osagaiak (lau lagunentzat):
–1 k. tripaki egosiak
–pipermin
–piper txorizeroaren haragia (koilarakada 2)
–4 koilarakada tomate-saltsa
–400 g. ziza
–lauzpabost berakatz atal
–olioa
–gatza

Egiteko era:
Berakatzak xerretan ebaki eta lapiko batean oliotan erreko ditugu. Zizak garbitu, laminetan ebaki eta baratxuriekin eta piperminarekin (zatituta) batera su bigunez berotuko ditugu. Eginda daudenean, piper txorizeroa eta tomate-saltsa bota, eta su bigunez berotuko dugu berriro. Tripakiak bota eta 20 minutuan su motelean egosiko ditugu. Gatza bota eta lurrezko kazolan zerbitzatuko dugu.

www.karlosnet.com



GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

San Fermingway
Edorta Jiménez
Egileak ez du Hemingway polemikoaren gaineko istorioan sartu nahi izan; dokumentazio eta ikerkuntza lan zabal-zabala eginda erakusten digu, besterik gabe, heriotza ez dela zertan idazle baten bukaera izan. Horrela, Hemningway festazalea, zezen munduaren zale amorratua, errepublikarra, espioia, mozkortia, idazle bikaina, ehiztaria, Gernikako bonbardaketak hunkitu zuen gerra-korrespontsala, Kubako euskaldunen laguna, andrekoia, buruarina, pilotazalea… denak paseatzen dira liburu honetan.

Ez dadila eguzkia sartu
Martin eta Xabier Etxebarria
Su-etenaren inguruko hausnarketa: "Gure esku dago guztia. Badugu parlamentua, baditugu alderdi politikoak eta elkarteak, eta badakigu kontatzen esku altxatuak zeren alde dauden. Zein da ba gure arazoa? Besarkada historikorako ordua da. Galdutakoen memoria erredimitzeko modu bakarra: euskal berpizkunde berri bat".

MUSIKA

Sorminetan
Anje Duhalde
Amorrua
Iker Goenaga
Por la boca vive el pez
Fito & Fitipaldis
Erase que se era
Silvio Rodriguez

DENBORA PASA

LETRAZOPA

R	A	Ñ	A	E	F	B	E	R	O	S	A	K
O	Y	I	B	I	T	E	A	G	H	L	M	P
G	O	S	P	L	Ñ	B	N	D	Ñ	B	O	J
S	T	T	A	Y	J	A	X	R	I	A	U	R
I	Z	H	M	R	K	Z	Z	P	S	O	N	Ñ
A	A	U	D	O	D	J	E	Y	N	T	T	O
I	X	A	Y	F	A	E	Y	R	X	S	U	S
N	J	K	B	O	H	T	A	U	G	E	Z	M
B	H	F	K	E	F	I	L	K	M	S	T	Z
X	D	A	D	P	E	G	H	X	L	Y	N	P
Y	K	R	G	U	I	T	F	J	K	Ñ	A	L
L	Z	S	E	M	D	E	R	R	U	X	T	A

Y	U	T	A	B	Ñ	B	F	A	E	J	Z	O
T	E	E	I	R	O	I	L	P	N	E	P	J
J	D	S	D	Y	R	D	O	N	A	S	I	G
N	F	B	K	A	Z	U	R	I	R	J	X	K
I	A	K	L	U	P	R	H	D	R	P	A	F
Ñ	E	S	X	H	D	R	M	E	A	R	E	A
D	N	M	G	G	O	E	B	L	M	K	L	T
H	I	E	P	I	N	Ñ	L	H	L	R	L	K
B	K	R	M	A	S	Z	N	A	H	G	A	L
T	A	Y	O	R	D	N	I	L	I	X	T	U
U	M	S	X	E	K	X	Y	N	Ñ	O	I	Y
Z	U	A	U	D	M	F	B	J	Y	G	Z	S

Aurki itzazu goiko letrazopan **soroan erabiltzen diran 7 tresnen izenak.***. Kontutan hartu Txorierrin esaten dan eran idatzita dauzela.

* "Derioztarren euskara" liburutik jasoak.

Ezkerraldean **AIKOR!** *52. zenbakiaren letrazoparen erantzuna. Lurra lantzeko 7 tresnen izenak.*



Agenda

Antzerki eta filmak

Derio
–*Las cicatrices de la memoria*, Ikastrola teatro taldearen eskutik. Azaroaren 21ean, 19:30ean, Larrabarri baserrian.

Azokak

Sondika
–Eskulangintza, Nekazaritza eta Abeltzaintzako X. Azoka, azaroaren 12an, 10:00etatik 14:30era: txakolin eta gazta dastatzea, abereak ferratze-erakustaldia, ponyak…
Zamudio
–Nekazaritza eta Abeltzaintzako XXII. Azoka, azaroaren 4an eta 5ean. Limusin Arrazaren Bizkaiko XI. Lehiaketa, horren barne.

Erakusketak

Sondika
–Argazkiak, Sondika-Goiri argazkigintza taldearen eskutik. Azaroaren 2tik 30era, erakusketa aretoan.
Larrabetzu
–*Ceuta, hiria eta muga*, azaroaren 20tik abenduaren 1era, Anguleri kultur aretoa.

Idi Probak

Zamudio
–Azaroaren 2an, 3an eta 4an, 21:00ak inguruan, probalekuan.

Ikastaroak

Lezama
–Ardo dastatzea, azaroaren 13tik 15era. Izena emateko epea: azaroaren 10era arte, liburutegian.

Irteerak

Lezama
–Paramo de Masa (Burgos), azaroaren 5ean, Urrusti elkarte mikologiko eta soziokulturalak antolatua.
–Obarenes mendiak (Burgos), azaroaren 12an, Gailur mendi taldeak antolatua.
–Demanda mendilerroa, azaroaren 19an, Urrusti elkarte mikologiko eta soziokulturalak antolatua.
Zamudio
–Txindoki, azaroaren 19an, Arroeta mendi taldeak antolatua.

Hitzaldiak

Zamudio
–*Sintronaren metodo berriari dagokion tratamendua.* Azaroaren 21ean, 19:00etan, dorrean.
–*Peter Pan eta jaka gorria,* Xabier Payaren eskutik. Azaroaren 22an, goizean, liburutegian.
Lezama
–*Nire etxearen osasuna aztertu*, Aitor Lopezen eskutik. Azaroaren 17an, 20:00etan, Kultur Etxean.
Larrabetzu
–*Laos bizikletan, Vietnameko gudan EEBBek zigortutako herria*. Azaroaren 9an, 19:30ean, Anguleri kultur aretoan.

Jaiak

Sondika
–San Martin, azaroaren 11n, Izartza auzoan: 12:00etan meza eta ostean, dantza agerraldia, Gorantzaileak taldearen eskutik; 19:00etan zesta punta partida.
Zamudio
–Etxeko txerrikia, azaroaren 2tik 4ra eta azaroaren 10etik 12ra.
–Sanmartinak, azaroaren 10etik 12ra.
–Erromeria, Dantza Alai taldearekin. Azaroaren 25ean, 18:00etatik 21:00etara, Adintsuen Elkarteak antolatua.

Kontzertuak

Larrabetzu
Jazz eta Folk. Azaroaren 24an, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.

Lehiaketak

Sondika
–Gabonetako Postalen Lehiaketa. Oinarriak Udaletxean eta liburutegian, azaroaren 13tik aurrera; lanak aurkezteko epea: abenduaren 11ra arte.
Zamudio
–Gabonetako Postalen VII. Lehiaketa. Gaia: Gabonetako ohiturak; lanak aurkezteko epea: azaroaren 24an baino lehen, kultura bulegoan.
Larrabetzu
–Gabonetako Postalen III. Lehiaketa. Lanak aurkezteko epea: azaroaren 6tik 17ra, liburutegian.

Tailerrak

Larrabetzu
–Apar-goma. Azaroaren 24an, 17:00etatik 19:00etara, Ludotekan.

Bestelakoak

Lezama
–Txorierriko presoen aldeko eguna, urriaren 29an, 13:00etatik aurrera. Ekitaldia, triki-poteoa eta herri bazkaria.
Derio
–Genero-indarkeriaren kontrako manifestazioa, azaroaren 25ean.

OSO ALTU EGITEN DUGU HEGAZ

Gure helburua sektore aeronautikoan liderrak izatea da







Gizartearen, gure pertsonen inplikazioaren eta haberkuntzaren jarraikortasunaren bitartez, berrikuntza eta inguramenarekiko errespetuaren bidez, Rikaintzaren riesgoak bidez.

ITP

GRUPO

Industria de Turbo Propulsores, S.A.

Euskal

ER

ER

IDMAS

Erreferentziako
kartela-
finantza-kartelen
erradesuri
guztiekin eta
galnera...

**Bidaia-
asistentziako
doako asegurua**
abantailak era
guztietako 2.000
establecimenduetan.
Deskontuak
mundu osoan
izateko gilza.

Kontsultatu
**BBK26 gida,
www.bbk.es**
orrian